


# Balorezko proposamena




Aparkatzeko zerbitzuak gidariaren erosotasuna du xede. Gidariaren denborari ahalik eta zuku gehien ateratzeko, denbora eta dirua aurrezteak da proiektuko sortzaileen helburu nagusia. Gidariaren hiru pausuak azkarra, eroso eta merkea izatea nahi du Fast Park-ek.

Gidariak askotan denbora galtzen du aparkalekua bilatzeko garaian, baita denbora urrea den kasuetan ere. Askotan, garestia izaten da aparkalekua bilatzeko prozesua eta aparkatzea bera, bilatzea konplikatua izatera iritsi arte. Hori betirako ahazko garaia iritsi dela iruditu zaigu; hori dela eta sortu da aplikazioa. Kezkak eta buruhausteak albo batera utzi eta aparkaleku azkar, eroso eta merke bat eskaintzen du zerbitzuak.

Irudikatzeke, gidaria autoan iritsi da bere bilera burutuko den kokagunera eta denboraz nahiko juxtu dabil, baina arazo batekin topatzen da: ez du aparkatzeko lekurik aurkitzen kokalekutik gertu. Arazo horri amaiera emateko helburua duenez, aparkatu nahi dugun lekuaren satelitezko mapa batek aparkatzeko hutsune egokia aurkituko dio, gertu egotea eta autoaren neurria ere kontuan izanik.


# Balorezko proposamena



Gainera, parkinetan ez ezik, kalean ere sensore batzuk instalatuz, aire librean zerbitzu hau erabiltzeko aukera izango du bezeroak berandu baino lehen. Ez da erraza kalean dauden hutsune libre guztiak antzeman eta aplikaziora igortzea, hare gutxiago sentsore kopuru erraldoi bat instalatzea. Hori dela eta pixkanakako prozesua izango da instalakuntza. Lurrazpiko aparkalekueetatik hasi eta kaleraino. Probatzen lehenengo hiria Donostia izango da, baina enpresaren helburua Euskal Herri guztira hedatzea da. Hartara, auto elektriko eta hibridoen erabileraren igoera txiki bat ere ikusteko gai izango gara.

Etorkizunagatik apostu egin nahi du enpresak, horregatik hartu du erabilera mugatzen duen araua: ibilgailu elektriko eta hibridoek izango dute zerbitzu hau merkeago erabiltzeko aukera, CO2 isurtzen dutenen eta horien sustapenaren aurka. Egungo egoerak asko kezkatzen du enpresa, eta zerbitzu paregabe hau eskainiz ez du kutsaduran eragiten duten ibilgailuei mesederik egiterik. Horrenbestez, ibilgailu elektriko eta hibridoen hilabetero ordaindu beharreko prezioa txikiagoa izango da besteekin alderatuz gero.

# Balorezko proposamena



Inon topatu ezin daitekeen zerbitzua da gurea, hainbat zentzutan desberdintzen baita: besteak beste, kaleko aparkalekuetan lekua bilatzeko aukera ematen duen lehenengo aplikazioa da. Gainera, berrikuntzaz gain, prezioa ere izan daitekeen egokiena da horrelako zerbitzu bati dagokionez. Hori gutxi balitz, CO2 emisioen aurkako erabakiak bezeroaren arreta erakarriko du eta lehiakidearengandik desberdindu. Bezeroarekin izango dugun arreta eta zerbitzua apartekoa izango da eta edozein kontsulta edo arazo tekniko konpontzeko prestutasuna erakutsiko du enpresak telefono bidez esaterako. Gaur egun ez da horrelako traturik jasotzen askotan, baina errespetua, taldelana eta bizikidetzaren gure baloreak direnez, errespetuz jokatzek izango du lehentasuna gure enpresan.